

Aurkezpena



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

1. DBH-ko lehen zikloan proposatutako hezkuntza-materiala

Karpeta honetan, DBHko lehen zikloko ikasleek gatazkei eta haien konponbideari buruz lan egiteko proposamenak auzak dira, curriculumeko hainbat arlotatik abiatuta. Prozedura berritzaileak oinarri hartuta jarrerak eta balioak lantzearen alde egiten duen materiala da; helburua da prozedura horien bidez, gatazkak sortzen direnean, jarduera solidario eta arduratsuetara bideratzea eta ikasteko era esanguratsuak ahalbidetzea.

Proposamen hau herritartasunaren gaia lantzen duen hezkuntza-proiektu zabalago baten zati da. Proiektuan hiru gai lantzen dira hiru ikasturtetan: eskubideak eta erantzukizunak; parte-hartze soziala; eta gatazkak maneiatu eta konpontzeko modu baketsuak. Ondoren, proiektuaren hirugarren urteari dagokion hezkuntza-materialaren zati bat aurkezten da; material honekin gatazkei aurre egiteko moduari buruz lan egin daiteke, lau ideia nagusi oinarri hartuta:

- Gure bizimoduan eta elkarbizitzan ezinbestean sortzen dira gatazkak. Ez dago bizitza sozialik gatazkarik gabe.
- Indarkeria ez da beti gatazkaren ondorioa, eta gatazka guztiek ez dute beti indarkeria eragiten.
- Herritar helduek gatazka elkarriketarantz bideratzen dute.
- Gatazka aukera bat izan daiteke gatazkako alderdiak hazteko, betiere, bide bakezaleak kudeatzen badakigu.

Curriculum-arlo bakoitzerako jarduera batzuk proposatzen dira, gatazka era baketsuan aztertzeke eta ebazteke herritar gisa dagozkigun ardurak lantzeke. Ildo horretatik, **matematikan**, zentroan inkesta bat egitea proposatzen da, ohiko gatazkak erregistratzeko eta horiek tratatzeko moduetan pentsatzeko; **hizkuntzan**, hizkuntzaren baliabideak erabilia, helburu bera lortzeko hainbat bide daudela eta horietako bakoitzak aberastasun ugari ekartzen duela konturatuko dira ikasleak; **natur zientzietan**, benetako ikerketa bat egiteko taldea antolatzea proposatzen da, auzoko gatazka eta arazo ekologikoen berri jasotzeko; **gorputz-hezkuntzan**, elkarrekin ariketa fisikoa egitea planteatzen da, gatazka batean elkarrekin lan egiteko gaitasuna garatzeko; **gizarte-zientzietan**, ikerketa eta eztabaida proposatzen dira gizarteko gatazka batzuei aurre egiteko: landako eta hiriko bizitza, gizon-emakumeen egoera...; **etikan eta erlijioan**, ikasleen artean laneko brigadak antolatzea proposatzen da gelako elkarbizitza hobetzen laguntzeko. Azkenik, **ingelesean**, gatazkak ebazteke, sorkuntza lantzea proposatzen da. Material hauek DBHko bigarren ziklorako prestatutako karpetetako jarduerekin osa daitezke.



Material honekin lortu nahi diren **helburu orokorrak** hauek dira:

- Natur baliabideak eta ingurua zaintzea garrantzitsua dela ulertzea, eta ingurunearen kudeaketan eta ingurumen-arazoei irtenbidea bilatzen parte-hartzeko norberak duen gaitasunaz jabetzea.
- Informazioa zenbait iturritatik lortzea, era autonomoan eta kritikoan, helburu bat lortzeko tresna gisa, lan-tzea, eta besteei era antolatuan helaraztea.
- Taldeko jardueretan jarrera arduratsua hartzea, jarrera solidarioak eta toleranteak izatea, diskriminazioak baztertzea eta gizarte-motak kritikoki baloratzea.
- Esparru desberdinetan (familia, auzoa, hiria...) gerta daitezkeen gatazkak era baketsuan tratatzeko bide-ak eta aukerak aztertzea.
- Jakintzaren eta esperientziaren esparruetan arazoak tratatzeko eta identifikatzeko estrategiak egitea.
- Komunikazio- eta elkarrizketa-egoeretan parte-hartzea eta elkarrizketaren oinarrizko arauak errespetatzea: entzutea, hitza hartzeko txandak, besteen iritziak... errespetatzea.

2. Zikloko irakasle eta gurasoentzat lan-proposamena

Ziklo honetan gai hori lantzeko, interesgarria iruditzen zaigu irakasleek eta gurasoek gaiari buruz hausnartzeko materiala eta denbora edukitzea, baita helburu nagusiak ezartzeko eta ikastetxeko errealitatera egokitze-ko ere.

Horretarako, bi dokumentu aurkezten dira orientazio gisa erabiltzeko. Lehen dokumentua '*Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara*' izenekoa da, eta hiru urteko iraupena izango duen proiektuaren aurkez-pena egiten du. Guk proposatzen dugun herritartasunaren kontzeptua definitzen du, eta hezkuntza-estrategia batzuk zehazten dira.

Bigarrean, '*Gatazkak modu baketsuan konpontzea*' izenekoan, dokumentu honetan aurkezten diren hez-kuntza-materialen proposamenaren oinarrian dagoen filosofia aurkezten da, eta posterraren, bideoaren, ikastetxearen proposamenaren eta jolasaren bidez osatzen dira, baita ALBOANen aholkularitza eta trebakuntzaren bidez ere.



Dokumentu horiek irakasleek eta gurasoek trebakuntza-saio batzuk egiteko oinarri gisa erabil daitezke. Saio horietan, ikuspuntuak partekatu, lanaren lehentasunak ezarri –testuinguru espezifikoaren arabera– eta proposamenak osatuko dituzte.

Ondoren, hiru trebakuntza-saiotarako proposamena aurkezten dugu, gaia klaustroan, taldean edo gurasoekin jorratzeko.

1. saioa:

Aurrez *'Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara'* dokumentua banatuko da.

1. Dinamika taldeka: *scrabble* jokoa herritartasun hitzari buruz.
 - a. Agertzen diren hitzak bateratzea.
 - b. Lehentasunaren arabera ordenatzea.
2. Herritartasunaren dokumentuari buruzko galdera hauek egitea.
 - Dokumentua azaltzea edo haren gaineko iruzkinak egitea.
 - Zer iradokitzen dizu herritartasunaren gaiak?
 - Gaiaren diagnostikoa:
 - Ikasgela, ikastetxea, irakasleak, gizartea.
 - Zer zerikusi du zure heziketa-lanarekin?
 - Gai horri buruz ezagutzen dituzun proposamenak eta ekimenak.
 - Zure heziketa-lanean beharrezkoak edo iradokitzaileak diren proposamen zehatzak bi alderdi hauei buruz:
 - Gaiak.
 - Metodologia.
3. Talde-lana eta bateratze-lana.

2. saioa:

1. Aurreko saioan azaldutakoa kontuan hartuz, herritartasunari buruzko diagnostikoa egingo da taldeka, ikastetxean eta ikasgelan oinarrituz.
2. Bateratze-lana eta adostea.
3. Ikastaro honetako gaiaren aurkezpena: gatazkak konpontzea.

“**Gatazkak modu baketsuan konpontzea**” dokumentua eta galderak edo iradokizunak banatuko dira.

Dokumentua lantzeko galderak

Gure eskolei dagokienez...

- Beste elementuren bat sartuko zenuke egoeraren diagnostikoan? Beste ezaugarriarik ikusten duzu zure ingurunean? Diagnostiko horrek zenbaterainoko balio duela uste duzu zure ikasleen artean?
- Zer egoeratan sortzen dira gatazkak ikasgelan? Nola lor daitezke aurretiko beharrezko baldintzak gatazkak konpontzeko? Nola susta daitezke jarrera edo komunikazio-gaitasun jakin batzuk ikasleen artean?
- Ikasleekin hitz egiten duzunean, gatazkak modu baketsuan konpontzeko eta elkarrizketarantz bideratzeko, zer argumentu erabiltzen dituzu? Zer tresna edo estrategia erabiltzen dituzu? Nola ikusten duzu zure burua familian, ikastetxean, herrian, munduan... gatazkak konpontzeari dagokio-

nez?

Gure buruari begira...

Gatazkak konpontzeko jarrera baketsuak garatu behar direla jabetzean, garrantzi handia hartzen dute erabiltzen ditugun mekanismoek, estrategiek eta bide baketsuek beste pertsona batzuekiko sortzen diren gatazkak konpontzeko.

- Nire ustez, zer erantzukizun ditut heziketa-lanean gatazkak konpontzeari dagokionez? Zein daude nire ‘laneko’ erantzukizunetatik harantzago?
- Heziketa-komunitate bateko partaide gisa:
 - Zein dira, nire ustez, sustatu behar ditugun baliok eta jarrerak?
 - Nola bultza daitezke bake-prozesuak?
 - Nork du horren erantzukizuna?

3. saioa:

1. Taldeka, galderak bateratu eta ikastetxearen edo hezkuntza-zikloaren diagnostikoa egingo da.
2. Bateratze-lana.
3. Ikastetxeko helburu nagusiak zehaztea gaia tratatu eta erabili beharreko materiala aurkezteko.
4. Gatazkak modu baketsuan konpontzeko sekuentzialki, progresiboki eta koherentziaz lan egiteko, ikastetxeko posterrak erabiliz, ALBOANek poster horiek kokatzeko ordena logiko hau proposatzen du:
 - Gatazkekin bizi gara.
 - Behar eta interes desberdinak daudelako sortzen dira gatazkak.
 - Biolentzia ez da hartu beharreko bidea.
 - Gatazka aukera bat da honetarako...
 - Gatazkak konpontzen ikasi behar da.
 - Gatazkak ikusi eta konpontzeko nahia eduki behar da.
 - Beharrezko jarrera batzuk hauek dira:
 - entzutea,
 - enpatia,
 - uko egitea,
 - bestea onartzea,
 - asertibitatea,
 - adostea,
 - harreman berriak eraikitzea,
 - Gatazkak hainbat modutan konpon ditzakegu: autogestioa, negoziazioa, arbitrajea eta bitartekotza.
 - Ondo konpondutako gatazkak aukera berriak ematen dizkigu.
 - Gatazkak konpontzeko gure jarraibideak.

3. Informazio gehiago lortzeko

Ondoren, web orrien zerrenda bat agertzen da informazioa zabaltzen laguntzeko eta gaiarekin lotutako beste baliabide interesgarri batzuetara iristen laguntzeko.

Dokumentazioa

<http://www.aufop.org/publica/reifp/>

IRAKASLEEN TREBAKUNTZARAKO UNIBERTSITATEEN ARTEKO ALDIZKARI ELEKTRONIKOA.

<http://lacolina.lasalle.org.ve/attach/153/default/APORTESDELAMEDIACI%C3%93N.rtf>

GATAZKAK KONPONTZEARI ETA ESKOLA-BITARTEKOTZARI BURUZKO ARTIKULUA.

<http://www.ilo.org/public/spanish/dialogue/themes/>

GATAZKAK SAIHESTEARI ETA KONPONTZEARI BURUZKO DOKUMENTUAK.

<http://www.rds.org.co/2002/centro-mundial/>

GATAZKAK IKERTZEKO ETA KONPONTZEKO ZENTROA.

<http://www.unesco.cl/pdf/actyeven/ppe/boletin/artesp/33-9.pdf>

KULTUR ANITZEKO HEZKUNTZARI ETA GATAZKEN AZTERKETEI BURUZKO ARTIKULUA.

<http://www.colegiomediacion.com/>

BITARTEKOTZA PROFESIONALAREN ELKARGOA. GATAZKAK KONPONTZEKO ALTERNATIBEI BURUZKO ARTIKULUAK ETA DOKUMENTUAK.

<http://www.crea.uct.cl/revista.php>

GATAZKAK KONPONTZEKO SISTEMA ALTERNATIBOEN ETA HAIEN EMAITZEN HEDAPENAREN IKERKETARI BURUZKO ALDIZKARIA.

<http://www.redoc.org/>

BAKERAKO PEDAGOGIARI BURUZKO DOKUMENTUEN WEB ORRIA.



Estekak

http://europa.eu.int/comm/justice_home/ejn/adr/adr_ec_es.htm

GATAZKAK KONPONTZEKO ALTERNATIBEN MODALITATEAK.

http://centros5.pntic.mec.es/cpr.de.aviles/asesorias/diversidad/Accion_Tutorial_Mediacion.htm

AVILESEKO IRAKASLE ETA BALIABIDEEN ZENTROA, MATERIAL ETA ESPERIENTZIETARAKO ESTEKEKIN.

<http://intercentres.cult.gva.es/cefire/46401840/diversificacio/>

ESKOLAKO GATAZKAK KUDEATZEKO BALIABIDEETARAKO ESTEKAK. GENERALITAT VALENCIANA.

Hezkuntza-esperientziak eta -baliabideak

<http://www.culturadepaz.info/home.php>

BALIABIDE INFORMATIBOAK HEZKUNTZARAKO ETA BAKEAREN ALDEKO ETA GATAZKAK KONPONTZEKO EKINTZETARAKO.

<http://www.fundacionperlapau.org/castella/>

BAKE-HEZKUNTZARAKO EKINTZAK, ARGITALPENAK ETA KANPAINAK.

<http://www.aprenderaconvivir.org/programa.html>

BIZIKIDETZA OSASUNTSUAGOA, ERRESPECTAGARRIAGO, SOLIDARIOAGOA ETA DEMOKRATIKOAGOA ERAIKITZEKO BALIABIDEAK ESKAINTZEN DITUEN UDALEKO HEZKUNTZA-PROGRAMA.

<http://www.mediacioneducativa.com.ar/index.htm>

HEZKUNTZA-BITARTEKOTZAREN JAKINTZA-ALORREN ARTEKO TALDEA. HEZKUNTZARI BURUZKO WEB-A BITARTEKOTZARI BURUZKO ESTEKEKIN, HEZKUNTZAKO ESPERIENTZIEKIN ETA BIBLIOGRAFIAREKIN.

http://www.concejoeducativo.org/alternat/conf_res.htm

IKASTETXEETAKO GATAZKEI ETA BIZIKIDETZARI BURUZKO HAUSNARKETAK ETA ONDORIOAK.

Matematika



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Buruko kalkulurako estrategia pertsonalak erabiltzea.
- Norberaren gaitasunetan fidatzea arazoei aurre egiteko eta kalkuluak egiteko.
- Batuketa, kenketa, biderketa eta zatiketa bizkor ebaztea.
- Emaidza bera lortzeko modu desberdinak daudela ikastea, gatazkarik sortu gabe.
- Eskolako benetako gatazkek detektatzea eta horiek konpontzeko estrategiak edo irtenbideak bilatzea.
- Lagin estatistiko baten datuak interpretatzea, datu horien adierazgarritasuna kontuan hartuz.
- Taulak eta grafikoak sortzea datu estatistikoetan oinarrituz.

Jarduerak

1 Jarduera: Letrarik gabeko zifrak

Deskribapena: Jarduera honetan azkar kalkulatu behar da denen artean edo talde txikietan. Zifra bat emango da, eta ikasleek zifra horretara iritsi behar dute eragiketa matematikoak eginez, finkatutako beste sei zifra erabiliz. Ikasleek zifra horiek beren artean batu, kendu, biderkatu eta zati ditzakete, baina zifra bakoitza behin bakarrik erabilita. Ez da beharrezkoa denak erabiltzea. Amaieran, taldeko pertsona bakoitzak ariketa ebazteko erabili duen estrategia azalduko die gainerako kideei. Taldekideek emaitza bera lortzeko hainbat bide daudela ikusiko dute. Denak baliozkoak, eta estrategien aniztasunak ez duela inolako gatazkarik sortzen konturatuko dira. Jarduera osatzeko, eztabaida bat egin daiteke 1.2. fitxako galderak erabiliz.

Materiala: 1.1. eta 1.2. fitxak.

Dinamika: Banakakoa eta taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.



2 Jarduera: Zein gatazkak kezkatzen gaituzte?

Deskribapena: Zer gatazka sortzen dira eskolan? Zeinek kezkatzen gaitu? Nola konpon ditzakegu? Galdera horietan oinarrituz, eskolako gatazkei buruzko inkesta bat egiteko eskatuko zaie ikasleei. 5 edo 6 pertsonako taldeetan, ikasleei, irakasleei, gurasoei, irakasle ez diren langileei eta abarrei zuzendutako inkesta diseinatuko dute. Talde bakoitzak inkesta kodifikatu, taula gisa jarri eta emaitzak grafikoki erakutsiko ditu, horma-irudietan idatzita. Horma-irudi horiek ikastetxeko hormetan jar daitezke, zentroko gainerako kideek gatazkek eta proposatutako irtenbideak ezagut ditzaten.

Materiala: 2.1. fitxa, kartelak egiteko kartoi mehea eta errotuladoreak.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko bi saio.

Iradokizuna: Jarduera hau ikastetxean, herrian edo munduan sor daitekeen beste edozein gairi buruzko gatazkara egoki daiteke, garrantzitsua dela ikusiz gero.

1.1. Fitxa

Saiatu xede-zifra lortzen beste 6 zifrak erabiliz.
Behin bakarrik erabil ditzakezue, eta ez dira denak erabili behar.

XEDE-ZIFRA: 396

10 5 100 9 1 50

XEDE-ZIFRA: 920

20 100 2 15 75 10

Modu guztiak probatu dituzue emaitza lortzeko?

Hainbat bide daude. AZTER ITZAZUE!!!

Beste zifra batzuekin jolasten jarrai dezakezue. Animo!



1.2. Fitxa

Hausnartzeko galderak

- Matematikan irtenbide desberdinak aurki baditzakegu arazo bat konpontzeko, posible al da hori bera egi-
tea etxean, ikasgelan, auzoan/herrian, munduan?
- Zein kasu ezagutzen dituzu?
- Irtenbide posible guztiek ondorio berak dituzte?
- Zer iradokitzen dizu horrek hurrengo batean gatazka bat konpondu behar duzunerako?

2.1. Fitxa

Ikastetxeko gatazkarik chikoenak zein diren aurkituko dugu.

- 1 Osatu 5 edo 6 pertsonako taldeak.
- 2 Inkesta bat egin ikasleentzat, irakasleentzat, irakasle ez diren langileentzat eta gurasoentzat. Inkestan informazio hau jaso behar da:
 - Zein dira ohiko gatazkek?
 - Zein dira kezkarik gehien sortzen duten gatazkek?
 - Gatazkek konpontzeko proposamenak.
- 3 Egin inkesta 25 pertsonako lagin bati:
 - 15 ikasle.
 - 4 irakasle.
 - 4 guraso.
 - irakasle ez diren bi langile.
- 4 Inkesta kodifikatu eta taula bihurtu. Horretarako, erantzun bakoitzari zenbaki bat eman behar diozue. Horrek gehien errepikatzen diren emaitzak atzematen eta erantzun bakoitzari dagozkion portzentajeak aurkitzen lagunduko dizue.
- 5 Aurkeztu emaitzak grafikoki eta horma-irudietan idatzita.



Hizkuntza



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Hitzak elkarren artean bizkor lotzeko prestatzea.
- Koherentziaz eta zuzen adieraztea idatziz, testu-mota edo -estilo jakin batera egokituz.
- Zer idazkera edo testu-mota dauden ezagutzea, baliabide desberdinetan adierazteko edo hainbat helburu lortzeko.
- Baliabide estilisko egokiak erabiltzea testu-mota jakin bat idazteko.
- Tolerantziaz eta errespetuz jokatzeko desberdina denaren aurrean.
- Aniztasunaren aberastasuna ulertzea.
- Helburu bera lortzeko hainbat bide daudela ulertzea.

Jarduerak

1 Jarduera: Gustua askorikoa da!

Deskribapena: Ikasleek bi zutabe marraztuko dituzte orri batean. Lehenengoan, irakasleak diktatuko dituen hitzak idatziko dituzte, eta bigarrenean, izen bakoitzarekin lotzen duten lehen hitza. Jarduera bizkor egin behar da. Ikasle guztiek hitz guztiak idatzitakoan, ozen irakurriko dituzte banan-banan. Ondoren, lortutako emaitzen aniztasunari buruz eta elkarrekin bizitzeko aukerari buruz hausnartuko dute; horretarako, kontuan hartuko dute desberdintasunek alde batetik zaildu egiten dituela elkarbizitza eta, bestetik, aberastu.

Materiala: 1.1. eta 1.2. fitxak.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.

2 Jarduera: Sarritan intoleranteak

Deskribapena: Familian, auzoan, herrian edo mundu mailan egunero gertatzen diren intolerantzia-egoerei buruz taldeka hausnartzeko eskatuko zaie ikasleei. Talde bakoitzak intolerantzia-jarrerak erakusten dituen egoera bat aukeratuko du, eta ikasgelan antzeztuko du. Antzezpen guztiak amaitutakoan, intolerantziari buruz, horren zergatiei buruz eta sortzen dituen eraginei buruz hausnartuko dute (2.1. fitxa).

Ondoren, funtsezko argumentu-lerroak eta hausnarketatik ateratako proposamenak zehaztutako dituzte taldeka, eta testu bat idatziko dute, talde bakoitzak formatu batekin.

Amaitzeko, testuen aniztasuna aztertuko dute, baita ideia bera nola adieraz daitekeen modu desberdinetan ere, mezua testuinguruari eta hartzaileari hobeto egokitzeko.

Materiala: 2.1. fitxa.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 90 minutu.

Iradokizuna: Testu horietako bat egunkari bat komiki eta berriekin egiteko ikastetxeen arteko proposamenen aurkez daiteke.



1.1. Fitxa

ZEREKIN LOTZEN DUZU...?

Justizia

Bakea

Giza Eskubideak

Demokrazia

Berdintasuna

Beldurra

Konfiantza

Gorrotoa

Haserrea

Adiskidetasuna

Gatazka

Arazoa

1.2. Fitxa

Pentsatzeko...

- Zer sentitu duzue hainbat erantzun ikustean?
- Zer adierazten dizue errealitate horrek?
- Horrek zer esan nahi du, batzuk hobeak eta besteak txarragoak direla?
- Elkarrekin bizi eta ondo konpon gaitezke guztiok hain desberdinak izanik? Nola?
- Pertsona guztiek hitz berak jartzea komeniko litzatekeela uste duzue? Zergatik?
- Zer ondorio ateratzen duzue esperientzia horretatik ikasgelan, familian, herrian eta munduan gertatzen diren gauza batzuei dagokienez?

2.1. Fitxa

1 Hausnar dezagun... INTOLERANTZIARI BURUZ

- Nola sentitu zarete?
- Agertoki errealak edo irudizkoak direla uste duzue?
- Zuen ustez, zein izan daitezke intolerantziaren zergatiak?
- Agertokiren batean identifikatuta sentitu gara? Zeinetan?
- Nola egin diezaiekegu aurre gure intolerantziei? Eta besteenei?
- Zer egin dezakegu tolerantziaren alde?
- Gaur egun, zein dira intolerantziaren arazo nagusiak?
- Zer proposatzen duzue horiek konpontzeko?

2 Taldeka, jaso agertu diren proposamen guztiak eta idatzi testu bat. Kontuan hartu proposatzen dizkizuegun formatuen ezaugarriak:

1. TALDEA – Literaturarako testua: Saiakera
2. TALDEA – Komunikabideetarako testua: Editoriala
3. TALDEA – Harreman instituzionaletan erabiltzen den testua: Eskaria
4. TALDEA – Pertsonen arteko harremanetan erabiltzen den testua: Iruzkina

3 Ideia berak modu desberdinetan jaso dituzu. Edukia, oinarrian, bera da, aldatzen dena aurkezteko forma da.

- Gauzak ikusteko eta adierazteko modu desberdinak eta baliozkoak daudela uste duzue?
- Emaidza bera lortzeko metodo desberdinak erabil daitezkeela uste duzue?
- Hobe da metodo batzuk erabiltzea beste batzuk baino? Hori zeren araberakoa da?

Natur zientziak



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Behatzeko eta ikertzeko jarduerak taldeka prestatzen eta egiten parte hartzea.
- Jarrera malgua eta lagungarria erakustea talde-lanean, zereginetan erantzukizunak nor bere gain hartuz eta arazoak ager ez daitezen ahaleginduz.
- Inguruko kalte edo arazo ekologikoez jabetzea eta irtenbideak bilatzea.
- Zaintza eta osasun pertsonal eta sozialerako jarrerak, gaitasunak eta ohiturak garatzea.
- Poluzioaren arazoarentzat irtenbide alternatiboak proposatzea.

Jarduerak

1 Jarduera: Ibilaldi ekologikoa

Deskribapena: Ikasleei taldeka beren auzoan edo herrian ibilaldi ekologikoa antolatzeko eskatuko zaie, arazo ekologikoak daudela uste duten inguruak bisitatuz. Ibilaldia egin aurretik, 30 minutu izango dituzte alderdi hauek erabakitzeke taldeka:

- ✓ zein arazo aztertu,
- ✓ nora joan,
- ✓ nola eta noiz joan,
- ✓ zer informazio jasoko duten,
- ✓ noiz amaituko den ibilaldia,
- ✓ protesta-ekintzaren bat egitea aurreikusten duten...

Ibilaldia antolatutakoan, 1.1. fitxako galderen gainean eztabaidatuko dute taldeka. Bisita egindakoan, bateratze-lana egingo dute denen artean. Talde bakoitzak detektatu dituen arazoak eta egon daitezkeen irtenbideak azalduko dituzte.

Materiala: 1.1. fitxa.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: Ibilaldia antolatzeko eta eztabaidatzeko 50 minutuko saio bat. Ibilaldi ekologikorako, talde bakoitzak beharrezkoa dela deritzona. 30 minutu bateratze-lanerako.

Iradokizuna: Irtenbideen proposamenak gutun batean idatz daitezke ikasleei, gurasoei, ikastetxeari, udalari, egunkariari eta abarrei zuzenduta.

2 Jarduera: Bizitza zaratatsua

Deskribapena: Ekologia lantzeko proposatuko da, poluzioa bereziki. Ke eta gasetan oinarritu beharrean, eguneroko poluzioaren parte diren zaraten gainean jarriko da arreta. Abiapuntu gisa, gai horri buruzko testu bat (2.1. fitxa) irakurtzeko eskatuko zaie ikasleei. Ondoren, taldeka, kalera irten-go dira eguneroko zaratak zinta batean grabatzeko. Grabazio guztiak ikasgelan entzungo dira; ikasleek haiek identifikatu eta irtenbideak ematen saiatuko dira, poluzio akustikoaren arazoa konpontzeko edo murrizteko. Azkenik, proposatutako irtenbideak martxan jarri gero gure bizitza nolakoa izango litzatekeen imajinatuko dute.

Materiala: 2.1. fitxa, grabagailua eta zinten erreproduzitzaila.

Dinamika: Banakakoa eta taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko bi saio.

Iradokizunak: Panel bat egin dezakete poluzio akustikoak sortzen dituen arazoak eta proposatutako irtenbideak azalduz. Eragiten diguten beste poluzio-mota batzuei eta haien irtenbideei buruzko hausnarketa ere egin dezakete.




1.1. Fitxa

Eztabaida taldeka – Ibilaldia antolatzea

- Nola sentitu zarete ibilaldi ekologikoa prestatzean?
- Taldean ados jartzea lortu duzue?
- Hala bada, nola egin duzue?
- Zer egin behar izan duzue ados jartzeko?
- Norbait zapaldua sentitu da eta taldeak erabakiak inposatu dizkiola pentsatzen du?
- Posible da arazoei irtenbide adostuak aurkitzea? Zer behar da?

Eztabaida ikasgelan – Ondorioak

- Zer arazo detektatu dira?
- Talde guztiek gai berari eman diote garrantzia edo batzuek garrantzi handiagoa eman diote beste arazo batzuei?
- Zer irtenbide proposatu dira?
- Zer baliabide aurkitu dituzue ingurumen-arazoak konpontzeko?



2.1. Fitxa

ZEIN ZARATAK ERAGITEN DIGU?¹

Gure entzumena ez dago prestatuta gizarte mekanizatuaren aurrerapenak inposatzen dizkiguten zarata izugarriak jasateko. Gorreria profesionalari buruzko lehen lanak 1830. urtekoak dira eta "errementeriaren gorrerari" buruzkoak dira, ondoren "galdaragilearena" etorri zen, geroago "ehuleena", eta hala, gehitzen joan dira gaur egun arte. Orain, gaixoak otorrinologogoaren kontsultara joaten dira, baina ez erai-kuntzako langileak, galdategietako langileak, mekanikoak edo txapistak soilik, baita lanbide berrietako gorra ere, adibidez, pub eta diskoteketako zerbitzariak, kabina intsonorizatuak ez dituzten "disc jockey"-ak, metro eta autobusetako gidariak, taxilariak, etab. Eta, oro har, gero eta jende gazteagoa.

Hirietan bizi garenok jatorri desberdineko hainbat zarata entzuten ditugu egunero: inguruneke zarata (industriak, eraikuntzak, jarduera profesionalak eta etxekoak sortuak). Gehien molestatzen duen zarata 90 edo 100 dezibelekoa izan daiteke, besteak beste: motozikleta batek 82, geltokira sartzen ari den trenak 90, edukiera handiko kamioiak 93 eta erreakzio-hegazkin batek 130 dezibel.

Eremu industrialetan, egunez, 70 eta 85 dezibel bitarteko zaratak dituzte, eta arriskurik handiena langileengan duen eragin zuzenaren arabera da. Erreminta eramangarriekin egiten diren lanak eta makina finkoek, adibidez, txikitzeko, zulatzeko, errematatzeko, zapaltzeko, kolpat-

zeko edo prentsatzekoak, 80 edo 85 dezibelek gorako zarata ateratzen dute, eta langile askok egunero erabiltzen dituzte erreminta horiek tailerretan.

85 dezibeleko intentsitate akustikoak entzumen-sisteman zuzenean eragiten du eta entzumen-organoak kaltetzen ditu. Kalte horren ondorioak izan daiteke oreka galtzea edo belarriko mina, eta psikologikoki harreman sozialean arazoak sortu eta somnanbulismo-arazoak eragin ditzake.

Poluzio akustikoak hainbat arazo sor ditzake maila organikoan, esaterako:

- Urdaileko mugimenduak, urin gastrikoa eta listua murriztea.
- Buruko mina.
- Adrenalina gehitzea.
- Begiko niniak dilatatzea.
- Odol-presioa igotzea.
- Bihozkadetan asaldurak.
- Estresa.
- Pultsua jaitea.
- Oreka galtzea belarrietan.
- Tentsio muskularra.
- Entzumena erabat edo partzialki galtzea.
- Asaldura psikologikoak.

Poluzio akustikoa arazo larria da gure osasunerako. Jabetzen gara zenbat zarata entzuten dugun egunero? Nola konpon dezakegu arazo hori?

- Taldeka, grabatu egunero entzuten ditugun zaratak.
- Ikasgelan grabazioak entzungo ditugu eta haiek identifikatzen eta bakoitzarentzako irtenbideak ematen saiatuko gara.
- Irtenbide horiek, zer aldaketa eragingo lituzkete gure eguneroko bizitzan?
- Beste zer poluzio-motek eragiten digute egunero?
- Nola konpon daitezke?

¹ Honako honetatik egokitua: María José S. Bermejo eta Fernando F. Vegas (1999). *La Ecología... a lo claro*. Popular argit.: Madril.

Gorputz-hezkuntza



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Erabakiak taldeka hartzeko eta gatazkak taldeka konpontzeko gaitasuna garatzea.
- Laguntzeko beharra sustatzea.
- Taldearen konfiantza garatzea.
- Taldeko lan baten helburuak lortzeko batasunak eta argitasunak duten garrantzia azpimarratzea.
- Arazoei aurre egiteko modu sortzaileak daudela jakitea.

Jarduerak

1 Jarduera:

Amarauna¹

Deskribapena: Soka erabiliz, bi metroko zabalera duen amarauna sortuko dute ikasleek bi aldean artean (zuhaitzak, zutabeak...). Tamaina desberdinetako tarteak uztea komeni da, handienak metro batetik gorakoak. Ikasleek “amarauna” zeharkatu behar dute ukitu gabe, hau da, sokak ukitu gabe. Ikasleei ideia bat proposa diezaieke irakasleak: kobazulo edo espetxe batean harrapatuta daude eta irtenbide bakarra elektrifikatutako hesia zeharkatzea da. Aurrenekoak besteen laguntzarekin pasatzeko modua bilatu behar da; gero, banan-banan irtengo dira; eta, azkenean beste arazo bat izango dute: azkenekoei irteten nola lagundu.

Materiala: Soka eta bi zutabe, bi zuhaitz... dauden leku bat, horien artean amarauna sortzeko.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 30 minutu.

Iradokizuna: Dinamikaren ondoren, jardueraren ebaluazioa egin daiteke: erabakiak nola hartu diren, zer estrategia-mota aukeratu diren eta zer erabaki hartu diren jarduera aurrera zihoan heinean eta arazoak aldatzen zihoazen heinean.

¹ Honako honetatik egokitua: SEDUPAZ-APDH (1995). *La Alternativa del Juego II*. Los Libros de la Catarata argit.: Madril.

2 Jarduera:

Arrantza

Deskribapena: Aretoa bitan banatuko da: itsasoa eta hondarra. Hiru boluntario eskatuko dira eta horiek arrantzale bihurtuko dira. Gainerakoak itsasoa igeri lasai dabiltzan arrainak izango dira. Arrantzaleen lana itsasoa sartu eta arrainak hondarretara eramatea izango da. Arrantza hainbat modutan egin daiteke. Bi baldintza bete behar dira: jarrera bortitzak ez erabiltzea eta arrantza egiten ez duten pertsonak uretan arnasarik ez hartzea. Beraz, “itsasoa sartzen” diren bakoitzean arnasari eutsi beharko diote eta ozen eta etengabe honako hau esan beharko dute: “TUTUTUTU”. Airea agortutakoan, uretatik irten beharko dute, hondarretan arnasa hartu eta berriro uretan sartu. Arrain bat harrapatzen duten bakoitzean, automatikoki arrantzale bihurtuko da. Arrain guztiak harrapatu eta arrantzale bihurtzean amaituko da jokia.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 30 minutu.

Iradokizunak: Bai arrainek, bai arrantzaleek beren estrategia bilatu behar dute. Bi taldeen helburua elkarri laguntzea da. Arrantzaleek arrantzan jarraitzeko estrategia bat aurkitzen ez badute, laguntza jaso dezakete:

- Arrantzan taldeka egitea, eta ez bakarka.
- Arrantza-saiakera bakoitzaren ondoren, estrategian berriro pentsatzea eta aldatzea, arrainak ustekabean harrapatzeko eta/edo egoera berrira egokitzeko.
- Uretan txandaka sartzea, denak batera sartu beharrean eta arnasa hartzeko lanak erdizka utzi beharrean.
- Arrainak elkartzen badira (hanketatik eta besoetatik), atzean kokatzea eta bultza egitea bloke osoa hondarretara eramateko.

Jarduera amaitutakoan, bateratze-lana egin daiteke parte-hartzaileen artean:

- Nola sentitu zarete?
- Zer jarrera hauteman dituzue?
- Zer erlazio aurkitzen duzue jardueraren eta eguneroko bizitzaren artean?
- Zenbateko garrantzia dute komunikazioak eta batasunak arazoak konpontzerakoan?
- Taldeak lortu nahi dituen xedeak garbi edukitzea garrantzitsua dela uste duzue? Zergatik?

3 Jarduera:

Bidea garbitzea²

Deskribapena: Ikasleak bi taldetan banatuko dira. Talde bati gelaren izkina batean zutik jartzeko esango zaio eta honako hau imajinatuko dute: paseatzera irten dira eta bidearen erdian haitz handi bat topatu dute eta orain ezin dute aurrera segi. Haitza mugitu beharko dute bideari jarraitzeko. Jarduera isilik egin behar dute. Amaitutakoan, beste taldeak egingo du.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 30 minutu.

Iradokizuna: Bi taldeek amaitutakoan, interesgarria izan daiteke jarduerari buruz hausnartzea. Aurreko jarduerako bateratze-lanean erabilitako galderen inguruan bidera daiteke eztabaida.



² Honako honetatik egokitua: Zenbait egile (1998). *Y los jóvenes... ¿Qué tal? Módulo de diagnóstico juvenil*. Encuentros, Casa de la Juventud: Lima (Peru).

Gizarte-zientziak



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Biztanleriari, landa-inguruneari eta hiri-inguruneari buruzko informazio garrantzitsua lortzea, hautatzea eta lantzea.
- Gertaera demografikoei, landakoei eta hirikoei buruzko informazioa lotzea.
- Aldaketa gatazka-iturri gisa ikustea.
- Aldaketen eta haien ondorioen garrantziaz eta ezinbestekotasunaz jabetzea.
- Gure gizarteko emakumeen egoeraren, eskubideen eta erantzukizunen, parte-hartze mailaren eta haien egoeraren eta gizonen egoeraren arteko desberdintasunen gainean hausnartzea.
- Txukun hitz egitea, iritzi-aniztasuna errespetatuz eta sor litezkeen gatazkek saihestuz.

Jarduerak

1 Jarduera: Landa edo hiria?

Deskribapena: Ikasleei bizi diren eskualdeak (probintzia, eskualdea, etab.) azken hirurogei urteetan jasan duen aldaketari buruzko ikerketa egiteko proposatuko zaie. Horretarako, urrats hauei jarraituko die:

1. Alderdi hauei buruzko datuak bilatzea: biztanle-kopurua, biztanle-dentsitatea, populazio-gunea landan eta hirian gaur egun eta orain dela hirurogei urte.
2. Azken urteetako landako eta hiriko aldaketa bizi izan duen pertsona bati elkarrizketa egi-tea (aitona bati, elkarte bati...). Informazioa aztertzea eta aldaketa horrek biztanlerian, populazioguneetan eta abar izan dituen ondorioak ateratzea, aldaketaren elementu posi-tiboak eta negatiboak aztertuz.
3. Taldeka, lortutako informaziotik ateratako ondorioak bateratzea eta fitxan agertzen diren galderen gainean hausnartzea.

Materiala: 1.1. fitxa. **Dinamika:** Banakakoa eta taldekakoa. **Denbora:** 50 minutuko saio bat.

2 Jarduera: Gizonak eta emakumeak gizartean

Deskribapena: Emakumeek gizartean duten egoerari buruz, lan-munduan sartzeari buruz eta emakumeen eta gizonen egoeraren arteko diferentziei buruz hausnartzeko proposatuko zaie ikasleei. Gai batzuen gainean (ikus 2.1. fitxa) hausnartutakoan, eztabaidari ekingo zaio ikasgelan. 10 minutu igarotakoan, eztabaida gelditu egingo da eta lehen ondorioa aterako da. Eztabaidari berriro ekingo zaio. Orduan, aurrena arau edo gako batzuk ezarriko dira denen artean (moderatzaille bat aukeratzea, hitz egiteko txandak errespetatzea...) eztabaida orde-natuagoa eta argiagoa izan dadin. 15 minutu igarotakoan, eztabaida amaitu egingo da eta irakasleak akta jasoko du. Ondoren, ikasleei irakurriko die eta balorazio bat egingo dute. Azkenik, prozesu osoa aztertuko dute denen artean (ikus 2.2. fitxa).

Materiala: 2.1. eta 2.2. fitxak. **Dinamika:** Banakakoa eta taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.



1.1. Fitxa

Nola aldatu da gure lurraldea azken 60 urteetan?
Bidaia dezagun denboran eta ikus dezagun nolako zen
orduan gure probintzia. Zer aldatu da?

1 Bilatu:

	Lehen	Orain
✓ Biztanle-kopurua:
✓ Biztanle-dentsitatea:
✓ Populazioguneak landan:
✓ Populazioguneak hirian:

2 Bilatu urte horietako aldaketa bizi izan duen pertsona edo talde bat, eta elkarrizketatu datuek emanda-ko informazioa osatzeko.

Aldaketa horrek, zer ondorio positibo eta negatibo izan ditu?

3 Taldeka jarriko gara ikerketan lortutakoa bateratzeko eta gai hauen inguruan eztabaidatzeko:

- Zer diozue aldaketa horien gainean?
- Aldaketa guztiak pertsonen nahien emaitza dira?
- Ondorio positiboak dituzte beti guztientzat?
- Zer da beharrezkoa aldaketa bat pertsona guztientzat onuragarria izan dadin?
- Egon daitezke aldaketak gatazkarik gabe? Nola?
- Zuen proposamenak aplika daitezke hurbileko aldaketetan: ikasgelan, familian...?

2.1. Fitxa

- 1** Emakumeek gizartean duten egoera aztertuko dugu. Gizonen paper berdina dute? Modu berean parte-hartzen dute gizartean? Eskubide eta erantzukizun berdinak dituzte? Hala eduki behar lituzketela uste duzue? Zergatik? Zer irtenbide bururatzen zaizkizue?

Gai horiei buruz eztabaidatu aurretik, hausnartu eta jarrera bat hartu esaldi hauen gainean. Zure adostasun-mailaren arabera, puntuazio bat eman: 1 guztiz aurka; 9 erabat ados:

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna oso ondo dago, baina egia da ez dagoela pertsona guztiarentzat lanik. Familiako kide batek etsi egin behar du, eta normala da gizonek lan egitea.									
Lanpostu batzuetarako, emakumeek ez dute gizonek gaitasun bera.									
Emakumeek eta gizonek eskubide eta erantzukizun berak dituzte gizartean; beraz, lan berdinak egin behar dituzte eta soldata berdina jaso behar dute.									
Norbaitek egin behar ditu etxeko lanak eta zaindu behar ditu seme-alabak. Emakumeek gizonek ez duten sentikortasun berezia dute horretarako, eta, horregatik, egokiagoa da zeregin horietaz emakumeak arduratzea.									

- 2** Orain ideiak argiago ditugu eta gai horri buruz hitz egingo dugu denon artean.

2.2. Fitxa

Eztabaidari buruzko galderak

- Nola joan da prozesua?
- Noiz sentitu zarete hobeto? Eta okerrago?
- Zerk eragin du eztabaidak hobeto funtzionatzea?
- Ados zaudete lortutako ondorioekin?
- Irtenbideren bat aurkitu duzue emakumeen egoera hobetzeko? Zer egin daiteke?
- Gatazkak konpontzeko metodo egokia izan daitekeela uste duzue?
- Nola proposatuko zenukete gatazka honen irtenbide bat:
 - Etxean.
 - Udalean.
 - Mundu mailan?



Ingelesa



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Ikasleak bere identitateari buruz hausnartzea.
- Ingelesez bakarka idaztea eta irakurritakotik ahozko mezu koherenteak sortzea.
- Gustukoak ez diren egoerak aldatzeko sorkuntza garatzea.
- Ingelesa beste herrialde batzuetako pertsonekin konektatzeko bide gisa erabiltzea.

Jarduerak

1 Jarduera:

What does my first name mean?

Deskribapena: Ikasleek haien izenaren esanahia ikertu eta esanahia haien izaerarekin bat datorren hausnartu behar dute. Parte-hartzaileek 1.1. fitxako galderei erantzun behar diete. Galderei erantzun ondoren, haien izenak idatzi behar dituzte izenaren esanahia adierazteko moduan. Ondoren, klaseko kideei erakutsi eta haien izenekin gustura dauden eztabaidatu behar dute; gustura ez badaude, nola konpon daitekeen aztertuko dute.

Materiala: 1.1. fitxa.

Dinamika: Banakakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.

Iradokizuna: Izenari buruzko haien hausnarketak www.kidlink.org web gunean martxan dagoen proiektura bidali ditzakete (proiektuaren izena: "What does my first name mean?").



2 Jarduera:

I have a dream

Deskribapena: Ikasleei 2.1. fitxa bakarrik betetzeko eskatuko zaie. Taldean, 3. eta 4. galderen erantzunak elkarrekin egiteko esan behar zaie. Erantzunekin, aldatuko lituzketen gauzeekin eta aldatzeko moduarekin horma-irudi bat egin behar dute. Emaitzak klasean azaldu behar dira ingelesez, eta, ondoren, irakasleak eta ikasleek erantzunak antolatu eta lehentasunaren arabera jarri behar dituzte. Ingeleseko mailaren arabera, gatazkei buruz eta bururatzen zaizkigun irtenbideei buruz hausnar daiteke.

Materiala: 2.1. fitxa.

Dinamika: Banakakoa eta taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko bi saio.

Iradokizuna: Proposamen hau www.kidlink.org gunean dago; gune horrek “I have a dream” proiekturako jarduera gehiago proposatzen ditu, gai honekin lotuta eta beste gai batzuekin lotuta. Ikasleei eska dakieke web orriko fitxa betetzeko eta gaiari buruzko haien hausnarketak beste herrialde batzuetako ikasleekin partekatzeko.

1.1. Fitxa

- What is your first name?
- What language is it in?
- What does it mean?
- Is there anything interesting or unusual about your first name?
- What city/country do you live in?
- How many people do you know who have the same first name as you?
- Does the meaning of your first name suit your character?
- Do you like your name?
- If you don't like it, how can you solve it? How does it solve other people you know?
- What other name would you choose?

2.1. Fitxa

Answer to these questions

- **Who am I?** (name, birthdate, country you live in, name of your school, your interests, your concerns and whatever else you want others to know about yourself)
- **What do I want to be when I grow up?** Share your vision of what you want to be when you grow up in terms of education and in general.
- **How do I want the world to be better when I grow up?** How would you like to improve the way we treat each other and the environment we share.
- **What can I do now to make this happen?** What steps can you take now to realize your personal goals and your vision of the world?



Etika / Erlijioa



MUNDUKO
HIRITARROK



ALBOAN

Helburuak

- Eguneroko gatazka-egoerak interpretatzea, eta haiek konpontzeko modu sortzaileak proposatzea.
- Taldea antolatzea eta esku-hartzea ikasgelako funtzionamendua hobetzeko, hainbat zereginen ardura hartuz.
- Gatazka pertsonalak taldean partekatzea, eta haiek konpontzeko edo tratatzeko bideak proposatzea.
- Ikaskideekin enpatizatzea.

Jarduerak

1 Jarduera: Gatazkak interpretatzea

Deskribapena: Gatazkak konpontzeari buruz dauden posterrak arretaz begiratzeko eskatuko zaie ikasleei taldeka. Ondoren, talde bakoitzak posterra nola interpretatu duen eta zer ondorio atera dituen azalduko die gainerakoei, nahi duen baliabideak erabiliz (mimika, marrazkia, antzerkia, ipuina, poesia...). Amaitzeko, denen artean hitz egingo dute hutsik dagoen posterrari edukia emateko.

Materiala: Posterrak.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.

Iradokizuna: Ondorioak marrazkien bidez edo idatziz aurkezteko proposa daiteke, emaitzak ikastetxeen arteko egunkari bat komiki eta berriekin egiteari buruzko proposamenean aurkezteko. Egunkari hori arazoak konpontzeari buruzkoa izango da.



2 Jarduera:

Brigadak

Deskribapena: Ikasgela hobetzeko lan-brigadetan antolatzeko eskatuko zaie ikasleei. Horretarako, eztabaida bat egingo da, eta moderatzaile batek zuzenduko du. Haren funtzio nagusia ikasgelako arazo nagusien identifikazioan pertsona guztiei parte hartzea bultzatzea izango da. Hitz egiten ari den ikaskidea errespetatu beharko dute gainerako guztiek, eta dagokienean parte-hartuko dute beren iritzia edo proposamena emateko. Detektatutako arazoen arabera, ikasgelan jardungo diren lan-taldeak antolatuko dira, eta arazo horiek bideratzen, haiei erantzuten edo konpontzen saiatuko dira (adibidez: girotze-taldea, adiskidetze-taldea...).

Hileroko txandakatze-sistema ezarriko da taldeen artean. Osoko bilerak egingo dituzte lortu dutenaren eta zailtasunen berri emateko, eta sortu diren proposamenei edo gatazkei erantzuteko.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat lehen eztabaidarako, eta aldizkako saioak osoko bileretarako eta talde-lanerako.

3 Jarduera:

Gatazkak trukatzea

Deskribapena: Ikasleak taldeka banatuko dira. Pertsona bakoitzak ikastetxean, lagunekin, familian eta abar duen arazo baten berri idatziko du paper batean, anonimoki. Paper guztiak batu eta berriro banatuko dira ausaz taldeko kideen artean. Bakoitzak tokatu zaion gatazka beregan hartuko du, eta ozen irakurriko du lehen pertsona (ni) erabiliz, eta arazo edo gatazka hori konpontzeko irtenbideak proposatuko ditu.

Aurkezpena egiten den bitartean ezingo da galderarik egin. Jarduera amaitutakoan, 3.1. fitxako galderen gainean hitz egin daiteke.

Materiala: Papera, boligrafoak, 3.1. fitxa.

Dinamika: Taldekakoa.

Denbora: 50 minutuko saio bat.

Iradokizuna: Erlijioan, azaldu diren gatazkei Jesusek kasu jakin horietan egingo lukeen moduan erantzuteko eska dakieke taldeei.



3.1. Fitxa

Eztabaida taldeka

- Nola sentitu zara zure arazoa irakurri dutenean?
- Eta beste pertsona baten arazoa azaltzean?
- Zure arazoa irakurri duen pertsonak ongi ulertu duela uste duzu?
- Zure egoeran jartzea lortu du?
- Eta zuk zure ikaskidearen egoeran jartzea?
- Eman dizkizuten irtenbideek lagundu dizute?
- Zer ikasi duzu jarduera honekin?

